


BERDINTASUN PLANA

Grupo Urgatzi S.L.



Enpresa

Urgatzi Taldea 1994. urtean sortu zen, gizarte zerbitzuen esparruan proiektu jasagarriak eta berritzaileak garatzeko helburuarekin. Muskizen etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen hasi zenetik (1995), mendetasun, desgaitasun, babesgabetasun edo gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen zuzendutako proiektuetan dihardu.

Pertsonetan oinarritutako arreta ereduagatik, talde profesional konprometituagatik eta behar berriei erantzuteko gaitasunagatik aitortza jasotzen enpresa gisa finkatzen da. Gaur egun 4.000 enplegu baino gehiago sortuak ditu, eta erakunde liderra da bere sektorean Euskadin.

Emaitzetatik harago, bere konpromiso soziala nabarmentzen da, enplegua sortzean, berdintasun eta inklusio politikak aplikatzean, erantzukizun sozial korporatiboan eta erabiltzaileen zaintza integralean islatzen dena.



Misioa

Gizarteratzeari, autonomia sustatzeari eta ongizate psikosozialari laguntzen dioten proiektuak garatea.



Bisioa (Ikuspegia)

Zerbitzuak baliabide bikain bihurtzea, pertsonen parte hartzea eta autonomia bultzatzeko.



Balioak

Konpromisoa, profesionaltasuna, bezeroarenganako orientazioa, jasagarritasuna, berrikuntza, etika, sareko lana, gardentasuna.

BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA

Urgatzi Taldeak emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera **berdintasunaren integrazioarekin** duen konpromisoa adierazten du bere Giza Baliabideen politikaren printzipio estrategiko gisa. Diskriminazio mota guztiak baztertzen ditu, zuzenekoak edo zeharkakoak, eta enpresan benetako berdintasuna lortzeko neurriak sustatzen ditu.

Adierazitako **oinarriak** gauzatuko dira **berdintasun neurriak** sustatuz edo egungo egoera hobetuko duen **Berdintasun plana ezarriz**. Dagozkion jarraipen sistemak antolatuko dira, enpresan eta, ondorioz, gizartean, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko.

Berdintasunaren oinarriak

- Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea, lan baldintzei, erakundearen antolaketa eta barne funtzionamenduari eta gizarte erantzukizunari dagokienez.
- Emakumeen eta gizonen arteko tratua berdintasuna printzipio informatzaile gisa integratzea: ez da egongo inolako diskriminaziorik, ez zuzeneko, ez zeharkakorik, sexua, amatasuna, familia betebeharrak hartzea eta egoera zibila direla-eta.
- Sexuagatikozuzeneko bereizkeria oro debekatzea eta arbuiatzea: sexuaren arabera, egoera parekagarrian egon litekeen beste pertsona batek jasoko lukeena baino tratua okerragoa jasotzen duen, jaso duen edo jaso dezakeen pertsona bat aurkitzen den egoera, eta haurdunaldiarekin edo amatasunarekin lotutako emakumeen aurkako tratua oro.
- Sexuagatikozeharkako diskriminazio oro debekatzea eta baztertzea: itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo praktika batek sexu bateko pertsonak beste sexuko pertsonetara desabantailan jartzen dituen, diskriminazio positiboko neurriak direnean izan ezik.
- Sexu jazarpena debekatzea eta arbuiatzea: sexu izaerako edozein portaeraren aurrean erreakzionatuko da, ahoskoa zein fisikoa izan, baldin eta jokabide horren helburua edo ondorioa pertsona baten duintasunaren aurka egitea bada, batez ere larderiakoa, degradaziozkoa edo ofentsakoa den ingurune batean.
- Sexuagatikozazarpena debekatzea eta baztertzea: halakotzat hartuko da pertsona baten sexuaren arabera egindako edozein jokabide, haren duintasunaren aurka eta larderiakoa, degradaziozkoa edo mingarria den ingurunea sortzeko eginga izan bada, bai eta eskubide bat edo eskubide itxaropen bat baldintzatzea ere, sexu jazarpena edo sexuagatikozazarpena dakarren egoera bat onartzeko.

BERDINTASUN PLANA

Grupo Urgatzi S.L.



PLANAREN EZAUGARRI OROKORRAK

- Zeharkakotasuna: Berdintasuna erakundearen maila guztietan integratzen du.
- Ikuspegi aktiboa eta prebentiboa: Berdintasuna lortzea eta mantentzea bilatzen du.
- Izaera kolektiboa: Langile guztiei eragiten die.
- Prozesu negoziatua: Parte-hartzea elkarriketa bidez bultzatzen du.
- Izaera dinamikoa: Pixkanaka egokitzen da.
- Sistema ordenatua: Helburu sistematikoak betetzean oinarritzen du bere arrakasta.
- Malgutasuna eta errealismoa: Enpresaren beharretara eta testuingurura egokitzen da.
- Behin-behinekotasuna: Benetako berdintasuna lortzean amaitzen da.
- Konpromiso estrategikoa: Erakundearen konpromisoa islatzen du.
- Hobekuntza iraunkorra: Planifikatzeko, egiteko, egiaztatze eta jarduteko zikloa du oinarri.
- Neurketa: Betetze maila ebaluatze adierazleak ezartzen ditu.



HELBURU ESTRATEGIKOAK

Planak bere indarraldian garatu beharreko helburu orokorrak ezartzen ditu:

- Enpresa kudeaketan genero ikuspegia txertatzea.
- Berdintasunean oinarritutako antolaketa kultura eraikitzea.
- Genero arrakala pixkanaka murriztea.
- Pertsonen eta prozesuen kudeaketan berdintasuna barneratzea.
- Genero zeharkakotasuna osasun politikan eta jazarpenaren prebentzioan aplikatzea.



JARDUERA ARDATZAK

Planak bost ardatz ditu, diagnostikoarekin eta helburu estrategikoekin bat datozenak:

- Estrategia ardatza
- Kultura ardatza
- Genero arrakala ardatza
- Pertsonak ardatza
- Lan Osasuna ardatza eta
- Genero indarkeria

Ardatz bakoitzak helburu, neurri, epe, pertsona arduradun, adierazle eta zeregin espezifikoak ditu, eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean ditugun konpromiso eta helburu estrategikoak lortzera bideratutako programa integral baten bidez egituratzen dira:

Berdintasuneko helburu espezifikoak

- Enpresaren plan estrategikoan berdintasunaren arloko helburu eta xede espezifikoak sartzea.
- Berdintasunarekin lerrokatuta eta konprometituta dagoen enpresaren irudia proiektatzea.
- Berdintasun planaren esparruan gauzatzen diren estrategiari, politikei, prozesuei eta jardueri buruzko informazioa ematea langileei.
- Erakundeko pertsonak kontzientziaztea, tratu eta aukera berdintasunaren printzipioa errespetatuz lan egin dezaten lanpostuan.
- Erakundeko pertsonak gaitzea lanpostua bete dezaten tratu eta aukera berdintasunaren printzipioa errespetatuz.
- Kide berriei berdintasunaren kultura helaraztea.
- Genero ikuspegia duen hautaketa prozesu bat izatea.
- Hautagaitzak irizpide argiekin eta objektiboekin ebaluatzea, hautatze prozesuan alborapena eragin dezaketen estereotipo eta aurreiritzietatik aldenduta, lanpostuaren eskakizunak betetzeko gaitasunaren printzipioei jarraituz.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna izatea eta promozioan diskriminaziorik ez egotea bermatzea.
- Kontziliazioaren arloko eskubideen erabilera bermatzea eta erantzunkidetasuna sustatzea.
- Lan arriskuen ebaluazioan genero ikuspegia txertatzea.
- Enpresan genero indarkeria prebenitzea.

